IDIAZABAL

# Uda kanpainarako koordinatzailea eta begiraleak hautatzeko deia

Uda kanpainarako kooordinatzaile eta begiralea hautatzeko prozesua abian jarri da.
Koordinatzaileei izateko ezinbestekoa da hezitzaile edo zuzendari titulua edukitzea, 18 urte beteta edo 2010ean bete-tzea, euskara ezagutza eta erabilera maila altua eta herritarra izatea. Baloratuko da esperien-tzia izatea eta EGA edukitzea. Lanaldia ekainak 14tik uztailak 23ra luzatuko da. 10:00etatik 12:30era eta ostiraletan 13:30era. Ekainaren 19 eta 26an (larunbatak) formazio saioak 10:00etatik 12:00etara izango da.
Begiraleak eduki behar dituzten betebeharrak: 18 urte beteta edo 2010ean betetzea, euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea eta herritarra izatea. Baloratuko da hezitzaile edo begirale titulua edukitzea, heziketarekin harremanak dituzten ikasketak edukitzea, esperien-tzia izatea, EGA edukitzea eta langabetua edo ikaslea izatea.
Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 28ra arte. Curriculuma aurkeztu behar da. Informazio eta izen emateak goizetan Udaletxean (943187100-kultura@idiazabal.info).

Iturria.Diario Vasco 2010-05-20